

## 2018-04-24ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko apirilaren 24an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxienerako partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### LEHENENGO GAIA

**AURREKO AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2018-01-30; 2018/02/27).**

Udalbatzak 2018ko urtarrilaren 30eko eta 2018ko otsailaren 27ko akten zirriborroak onartu ditu, aho batez.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du aktetan ondo amaitu gabe dauden esaldiak daudela eta beste zenbait akats, eta kontuan hartu behar dela hori, gero argitaratzen direlako.

Idazkariak erantzun du berriz berrikusiko dituela.

**BIGARREN GAIA**

**ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/33  
DEKRETUTIK 2018/55 DEKRETURA ARTE.**

Alkateak 2018/33 dekretutik 2018/55 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Ainhoa Ugalde zinegotziak aipatu du administrarien langileen poltsa osatzeko aukeraketa-prozesua egin dela eta errekurtsua ere aurkeztu dela, eta galdetu du prozesua nola izan zen.

Idazkariak erantzun du epaimahaiko kideek memoria prestatu dutela memoria prozesuari buruz, eta han azaltzen dela prozesua nola izan zen. Lanbide erakundearen iragarkia jarri zen, eta hirurogeita bost eskaera aurkeztu ziren. Horien artean, hogeita bost aukeratu ziren, erakunde publikoetan zuten esperientzia kontuan izanik eta enpresa pribatuetan izandako curriculumaz aztertuta. Aukeratuen artean elkarrizketa egin zen, eta bederatzi aukeratu ziren informatikako frogatik egiteko. Tolosaldea Garatzen enpresa publikoko pertsonak prestatu eta aztertu zuten frogatik, eta, ondoren, epaimahaiak pertsona bat aukeratu du.

Olaia Nieto zinegotziak galdetu du zergatik ez den aldizkari ofizialean argitaratu.

Idazkariak erantzun du ez delako izan benetako funtzionarioak aukeratzeko proba bat, bitartekoa aukeratzeko baizik. Inork ez du argitaratzen, hemen egin dena ez du inork egin, eta gainerakoek "nahierara" egiten dute askotan, eta ez dute aldizkarian argitaratzen edo Lanbide-n iragarkia jartzen.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du harritzen direla errekurtsua jarri izana.

Idazkariak erantzun du edozeinek aukera duela errekurtsua bat jartzeko eta legeak eskatzen duena dela prozesua arina izatea, eta gainera, publizitatea eman dela. Banatuko dela errekurtsuari buruz egin duen txostena.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du galdetu duela elkarrizketa nola puntuatu zen eta erantzuna nahiko orokorra izan dela: eskarmentua kontabilitatean, curriculumaz ... Alabaina, ez da agertzen zenbateko puntuazioa eman zitzaien gai bakoitzari. Udal honetan lanean aritu zen herriko pertsona bat hirurogeita bost dezimoko aldearekin kanpoan geratu zela eta elkarrizketaren puntuazioa ez dagoela oso ongi zehaztuta eta pixka bat informalak izan daitezkeela proba hauek. Galdetu du ea ezin zaion Udal honetan lan egiteari puntuazioa eman.

Idazkariak erantzun du pertsona horrek denbora gutxi eman zuela bertan lanean eta aukeratu den pertsonak beste udal batean egiten zuela lan, baina ez zuzenean, baizik eta enpresa baten bidez.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du lanpostu hauek nahiko erakargarriak direla jendearentzat (hilabete batzuk lan egitea, soldata,

curriculum.. ) eta ez bada dena hobeto zehazten, zenbat puntu emango zaizkion gai bakoitzari, jolasten ari garela jendearekin. Diferentzia, azkenean, oso puntu gutxikoa izan da, eta gero sortzen dira zalantzak, errekursoak ...

Idazkariak erantzun du nahiko publizitatea egin dela, herrian zein Lanbide-n, hainbat pertsona aurkeztu zela eta nahikoa lan egin dela, nahiz eta ez den benetako oposizioa izan, eta jakin nahiko lukeela beste erakundeetan nola egiten dituzten frogak, bitarteko funtzionarioak aukeratzeko.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak erantzun du gehiago zehaztu behar dela puntuazioa eta zenbat puntu eman behar zaion gai bakoitzari. Gero arazoak sortu daitezkeela, bestela. Puntuazioa zehaztuago edukitzea hobekuntza iruditzen zaio, eta uste du herrikoa izateari puntuak eman beharko litzaizkiokeela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du beraien nahia dela bakarrik, prozesu horiek ongi egitea.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du orain horrela egin dela, baina etorkizunean saiatu behar garela hobeto egiten, eta adibidez, puntuazioa hobetu zehaztu daitezkeela, geroago zalantzarik ez izateko emaitzekin.

Alkateak 2018/33 dekretutik 2018/55 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **IRURAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

2012ko maiatzaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zuen.

Con fecha 22 de mayo de 2012, la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó el Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

Une honetan Udalak 2. aldaketa puntuala bat egin nahi dio Planari Udaletxe dagoen orubean hirigintza diseinua aldatzeko aukera izateko eraikinaren egungo dimentsioak handitzeko eta beste aldaketa batzuk txikiagoak helburuarekin.

En este momento este Ayuntamiento quiere proceder a la 2ª modificación puntual del mismo al objeto de promover el aumento de edificabilidad y ocupación del edificio de la Casa Consistorial y algunos otros elementos menores.

Hori ikusita, Udal honek 2018ko urtarrilaren 30ean egindako bileran

Ante ello este Ayuntamiento en sesión celebrada el 30 de enero

erabaki du hasiera baten aldaketa onartzea eta jendaurrean jartzea eta dagozkion txostenak eskatzea.

Jendaurrean epea hasita, alegazio bat aurkeztu da:

Jose Ignazio Imaz, Irurako Udaleko EH Bildu udal taldearen izenean

Gainera Gipuzkoako Foru Aldundiak eman aldeko txostena errepide arloan, 2018ko otsailaren 26 an.

Ikusita Planaren eragile taldearen txostena, alegazioari buruz eta idazkariaren / kontu-hartzailearen txostena.

Hirigintzako legediak jasotakoarekin adostasunean.

Hori ikusita, Udalbatzak , bost (5) boto alde (PNV) eta hiru (3) aurka (EH Bildu) , udal kide kopuru legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, erabaki hau hartu du

#### AKORDIOA:

Lehen.- Uko egitea alegazioari, Planaren eragile taldearen txostenaren arrazoiengatik.

Bigarrena.- Udal honek egin duen Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 2. Aldaketa Puntuala onartzea behin behinekoz, aldaketarik egin gabe.

de 2018, ha acordado aprobar inicialmente la modificación y someterlo a información pública y emisión de los informes correspondientes.

Habiéndose procedido a la apertura del periodo de información pública, se ha presentado una alegación de D. Jose Inazio Imaz, en calidad de concejal del grupo municipal de EH Bildu en este Ayuntamiento de Irura.

Así mismo se ha emitido informe favorable de La Diputación Foral de Gipuzkoa, en materia de carreteras, con fecha 26 de febrero de 2018.

Vistos: el informe del equipo redactor del Plan sobre la alegación presentada y el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con lo dispuesto en la legislación urbanística .

Ante ello, la Corporación acuerda por cinco (5) votos a favor (PNV) y tres (3) en contra (EHBildu), que representan el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación , lo siguiente:

#### ACUERDO:

Primero.- Desestimar la alegación presentada por las razones señaladas en el informe del equipo redactor del Plan.

Segundo.- Aprobar provisionalmente la Modificación Puntual nº 2 del Plan General de Ordenación Urbana de Irura formulada por este Ayuntamiento , sin introducir modificación alguna.

Hirugarrena.- Espedientea bidaltzea EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordeari, txostena idatz dezan.

Tercero.- Remitir el expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País para la emisión del informe correspondiente.

Laugarrena.- Behin aurreneko izapidea amaituta, Gipuzkoako Foru Aldundiari espedientea igorriko zaio, behin betiko onarpena emateko.

Cuarto.-Una vez efectuado ese trámite remitir el expediente a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

Eztabaida:

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du EH Bildu taldeak aurka bozkatuko duela. Badakite Plan Orokorra aldatzea baino ez dela eta udaletxeko erreforma egitea derrigorrezkoa ez izateko aukera ematen diola soilik. Hala ere, onarpena eman ondoren, otsailen dekretua onartu zen eta proiektua egitean ez zitzaien haiei kontsultatu eta solairu bat gehiago ematen zaio eraikinari, beraiei edo herriari kontsultatu gabe. Orain ez dira fidatzen, eta proiektua nola geratuko den ikusi arte, aurka bozkatu dute.

### LAUGARREN GAIA

#### TRAFIKO ORDENANTZAREN 3. ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.-

Irurako Udalak, 2003ko otsailaren 4an, Zirkulazioa arautzen duen Ordenantza onartu zuen eta 2003ko apirilaren 11n argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Por este Ayuntamiento de Irura, el 4 de febrero de 2003, se aprobó la Ordenanza Municipal de Circulación y se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 11 de abril de 2003.

Ondoren, 2010eko uztailaren 20an, San Migel Plazaren oinezkoentzako erabilera erregulatzeko aldaketa sartu zen.

Posteriormente se introdujo una modificación para regular el uso peatonal de la Plaza San Miguel con fecha 20 de julio de 2010.

Hala ere, 2013ko uztailaren 23an, ibilgailuak Plazara sartzeko ordutegia aldatu zen.

Así mismo con fecha 23 de julio de 2013, se modificó el horario de acceso de vehículos a la Plaza.

Azken urteetan eskarmentua ikusita, berriz ibilgailuak plazara sartzeko ordutegia aldatu nahi da.

Vista la experiencia adquirida en los últimos años, se quiere volver a modificar el horario de acceso de vehículos a la Plaza.

Hori ikusita, 5 boto alde (PNV) eta 3 aurka ( EH Bildu) Udalbatzak hau onartu du

Ante ello, y por 5 votos a favor (PNV) y 3 en contra (EH Bildu , se adopta el siguiente

#### ERABAKIA

#### ACUERDO

1.- Hasierako onarpena ematea Zirkulazio arautzen duen Udal Ordenantzaren 4. aldaketari, lehen aipatu den proposamenaren arabera. Dena dela, ordutegi berria ezarriko den eguna 2018ko abuztuaren 1ea izango da.

1º.-Aprobar con carácter inicial la 4ª Modificación de la Ordenanza Municipal de Circulación, según dicha propuesta.

En todo caso la fecha de la implantación del nuevo horario será el 1 de agosto de 2018.

2.-Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epeaz, gutxienez, iradokizunak eta erreklamazioak jarri ahal izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bitartez.

2º.-Someter el expediente a información pública por el periodo de 30 días hábiles, para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.-Erreklamazio edo iradokizunik ez badago, behin betiko onartuko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da, eta Ordenantzaren testu bateratua argitaratuko da.

3º.-En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo se entenderá aprobado definitiva y se publicará el texto completo del mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En este sentido se publicará el texto refundido de la Ordenanza.

Bestela, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak baldin badaude, Udalbatzari dagokio behin betiko onarpena ematea.

En el caso de presentación de reclamaciones y sugerencias en plazo, la aprobación definitiva corresponde al Pleno.

Eztabaida:

Alkateak adierazi du proposamena dela goizean plaza irekita geratzea eta arratsaldean ixtea. Udan berriz, ordu bat gehiago itxita izatea.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak erantzun du ez daudela ados goizean irekitzearekin, plaza seguruago bihurtu behar dela oinezkoentzat eta proposamena kontrakoa dela: lekua autoentzako berriz irekitzea. Goizez umeak dabilta bertan, eskolara joateko eta itzultzeko, eta aguazila errepidean dagoela

umeei segurtasuna emateko. Udan ere “goiza pasan” egoten dira eta bertan ume piloak biltzen direla.

Alkateak erantzun du ordutegi berria abuztuan hasiko dela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du datorren ikasturtean, irailean, ikastola berriz hasiko dela eta igandeetan ere ume bila ibiltzen dela.

Alkateak erantzun du udal-teknikariekin (zerbitziburua eta aparejadorea) hitz egin dutela eta esan dutela egokia dela goizean irekitzea.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du udal-teknikari batek ez dakiela zenbat jende ibiltzen den plazan igande batean.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak erantzun du nahiko arriskutsua bihurtuko dela plaza asteburuetan eta udan.

Alkateak erantzun du Plaza oso seinaleztatuta dagoela eta espero duela ezer ez gertatzea, baina edozein lekutan gerta daitekeela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du atzerapausoa dela, plazak herritarrentzat izan behar duela ordu gehiagoz eta ez denbora gehiagoz autoentzat. Halaber, esan du ez dakiela nork egin duen eskaera pibotea gehiago irekitzeko.

Alkateak erantzun du ez dagoela beste aukerarik plazan sartzeko.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du beste aukera bat badagoela plazan sartzeko.

Alkateak dio hala dela, baina hilerrira joateko ez dagoela.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun du aukera dagoela kontrako norabidean joateko hilerrirako errepidea hartu nahi dutenentzat. Bere etxera joateko udal zerbitzuari hainbat datu eman behar dizkiola, gero pibote igotzeko, eta goian bizi direla eta haien lana egin behar dutela horretarako. Plaza oinezkoentzako izan behar da, prezio bat dauka horrek, baina bera alde dago.

Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du zenbat jende doan hilerrira eta zenbat ume ibiltzen den plazan, askoz gehiago.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du alkateak baloratu behar duela, zortzitan ireki ordez, bederatzitan edo eta laurdenetan irekitzea. Ordu horretan joaten dira umeak ikastolara.

Alkateak erantzun du ez duela ikusten horrenbesteko arriskurik.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun du bederatzia laurden gutxitan ume piloak pasatzen dela plazatik, eta udal-gobernua gonbidatzen du aztertzea eta beranduago irekitzera. Dirudienez, ordubeteko malgutasuna lan gehiegi da udal-gobernuarentzat eta espero du ezer ez gertatzea.

## **BOSGARREN GAIA**

**2018-03-15EKO ALKATEAREN DEKRETUA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.**

18-03-15eko 45/18 Alkatearen Dekretua jakinarazten da:

2018ko urtarrilaren 18ko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindua argitaratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak (G4,G5 eta G6) sustatu eta garatzeko laguntzen duen deialdia.

Irurako Udalak proiektu bat sartu nahi du programa horretan: "Irura udalerriko urbanizazioa, zolaketa eta irisgarritasunerako lanak".

Proiektuaren aurrekontua 48.968,34 eurokoa izango da.

Hori dela eta, indarrean dauden araudiak ematen dizkion eskuduntzak ikusita, eta premiazko arrazoiengatik:

#### EBATZI DUT:

Lehena.- Proiektu hori aurrera eramatea onartzea.

Bigarrena.- Udalbatzari jakinaraztea, hurrengo bileran, akordio hau berresteko."

Eta udalbatzak ,aho batez, jakinaren gainean geratu da.

#### SEIGARREN GAIA

##### **TOLOSALDEA GARATZEN S.A. ENPRESARI 2018KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Tolosaldea Garatzen S.A. enpresaren kide garenez eta 2017ko abenduaren 19ko Batzar Orokorrean onartutako Kudeaketa Planean zehazten denaren arabera, 2018. urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena 14.266,00 eurokoa da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

#### ERABAKIA

Ekarpenaren gastua onartzea eta ordaintzea.

#### ZAZPIGARREN GAIA

##### **DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1.EPAITEGIAREN 66/2018 AUZIA JAKINARAZTEA.**

Jakinazten da , Irurako Udaleko udalbatzak 2016ko urtarrilaren 26an 2016ko bere lan egutegia onartu zuela eta Estatuko Administrazio Orokorrak auzi errekurtsua jarri zuela. Orain Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak auzia ebatzi du :



“Estimo el recurso contencioso administrativo interpuesto por la ADMINISTRACION GENERAL DEL ESTADO, DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO contra la actuación administrativa indicada en el encabezamiento del AYUNTAMIENTO DE IRURA, que se declara no ajustada a derecho y se anula dejándola sin efecto.

No se efectúa imposición de costas.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **BERDINBIDEAN GIPUZKOA PROGRAMAN PARTE HARTZEKO KONPROMISOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Berdinbidean Gipuzkoa programaren 2018 – 2019ko lan – egitasmoan parte hartzeko udalbatzak, aho batez, konpromiso hauek hartu ditu:

1. Emakume eta Gizonen berdintasunerako bidean, Udal honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera eta Berdinbidean programaren lan markoan berdintasun politika zehatzak garatzeko konpromisoa hartzen duela.
2. Politika horien garapen egoki eta sostengarrirako beharrezkoak diren bitarteko teknikoak eta politikoak jarriko dituela eta hori bermatzeko Miren Genua and. Gizarte-laguntzailea lanpostua duen udal-teknikaria eta Ana Jesús Leunda (alkatea) eta Cristina Santos (zinegotzia) arloko arduradun politikoa izendatzen dituela *Berdinbidean*ekin elkarlanean aritzeko eta lan honek suposatzen duen dedikazioa eskaintzeko neurriak hartuko dituela.
3. Agiri honekin, Udalak atxikita doazen programaren baitan finkatutako konpromisoak ezagutzen eta onartzen dituela ziurtatzen du.

### **BEDERATZIGARREN GAIA**

#### **HARITUZ TOLOSALDEAKO BERTSOZALE ELKARGUNEAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Tolosaldeako Bertsozaleen Elkarguneak Tolosaldeako udalei bere proiektuan parte hartzeko proposamena aurkeztu du: Tolosaldean bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi transmititzea. Horrela bertsolaritzaren ekosistema osoa hartzen du aintzakotzat: bertsolariak, irakasleak, gai jartzaileak, antolatzaileak, zaleak ... 2017-2018 Ikasturteko egitasmoan gastuak ordaintzeko, Irurako Udala prest dago 2.000 euroko diru-laguntza emateko.

Hori ikusita , Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

ERABAKIA

1º.- 2017-2018rako ikasturterako 2.000 euroko diru-laguntza ematea eta dagokion hitzarmena onartzea.

2º.- Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga Alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta beste edozein gestio egiteko, helburua bete dadin.

### **HAMARGARREN GAIA**

#### **TOLOSALDEA ARRAUN KLUBAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Tolosaldea Arraun Klubak, egitasmo hau aurkezten du: aurten emakumezkoen trainerua ateratzeko egitasmoa daukate Tolosaldearen izenean, eskualde osoa ordezkatzuz. Eskualde bezala agertzeaz gain , herri bakoitzak garrantzia izatea ere nahi dute. Proiektu polita da, baina aldi berean, derrigor handia eskatzen du eta honek, behar ekonomikoa ere badakar. Horretarako, ezinbestekoa ikusten dute eskualdeko udal guztien babesa.

Hori ikusita, udalbatzak , aho batez, hartu du honakoa,

### **ERABAKIA**

1º.- 1.000 euroko diru – laguntza onartzea eta ordaintzea.

2º.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea.
- b) Legearen 13.artikuluari adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

### **HAMAIKAGARREN GAIA**

#### **EUSKAL FONDOAREN 2018.URTEKO KUOTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalbatzak, aho batez, onartu du honakoa :

## ERABAKIA

Euskal Fondoan 2018 bazkide kuota onartzea , 583,49 eurokoa eta zuzenean ordaintzea.

### HAMABIGARREN GAIA

#### **ASUNCION KLINIKARI BURUZ ELAK ETA LABEK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**ELA eta LABeko hautetsiez osatuak Invizako langile batzordearen Proposamen hau aurkeztu dute :**

Asunzion klinikako (inviza) langile batzordeak ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Irurako Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Asunzion klinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu E.S.I. aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da, eskualdeari osasun arreta eman asmoz.

2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saiatzen ari gara, baina enpresaren jarrera, nahiz eta osasun sailetik negozia seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hori ez dela horrela.

Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintzak Osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.

Ezin dugu ahaztu hospitale publikorik ez duen EAeko eskualde bakarra garela. Eta gure baldintzak prekarioak diren hainean eskaintzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.

Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

- 1.- Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpresari.
- 2.- Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen.
- 3.- Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.
- 4.- Udalak eska dezala Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1. – 3.2.2. – 3.2.4. – 3.2.5. – 3.3.2. – 3.3.4. puntuetan.

5.- Bidal diezazkiela Udal honek onartu dituen erabakiak Gasteizko gobernuari.

**Beste aldetik EAJ-PNV Irura beste mozioa aurkezten du:**

Gizarte Babeseko Euskal Sistemaz ari garenean, dispositibo, zerbitzu eta prestazio batzuei buruz ari gara, zeinen bidez bermatzen baitzaizkio gizarte osoari hainbat eskubide eta erantzuten baitzaie hainbat beharri; hain zuzen ere, bizitza kolektiboaren kalitatean duten garrantziagatik sozial deitzen zaie.

Gizarte Babeseko Euskal Sistema hau, bere espezifikotasunak barne, demokrazia garaian joan da ehuntzen. 38 urte baino gehiago osasun alorreko eskumenak kudeatzen, esfortzu eta erabakitasunez, paziente, profesional, gizarte-eragile eta osasun-agintarien aldetik. Horrelaxe lortu da Gizarte Babeseko Euskal Sistema eredu izatea asistentzia- kalitatean eta ongizatean, gai izanik, gainera, sistemaren jasangarritasunari eusteko.

Tolosara etorrira, zerbitzu hau doan ematen da Asuncion klinikaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko kontzertazioaren bidez. Kontzertazio hori Tolosako herriak aho batez erreklamatu zuen Udalean zituen ordezkarien bidez, Tolosaldeak eskualde-ospitale bat izan zezan, pazienteak Zumarragara edo Donostiara joan beharrik izan gabe. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritza izan da ahalbidetu duena klinika pribatu batek, kontrol publiko guztiei lotuta, zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa ematea.

Horregatik, egoera honek Tolosaldeako osasungintzari une honetan nola eragiten dion ikusita, normaltasun laborala, asistentziarena eta era guztietakoa berreskuratze aldera:

1. Eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuari, bere eskumenak erabilia, eskura dituen neurriak har ditzan Asuncion Klinikako enpresak eta langileek berehala konpon dezaten hilabeteak daramatzan lan-gatazka.
2. Eskatzen diogu bermatzen jarri dezala doakotasuna, unibertsaltasuna eta kalitatea Tolosaldeako herritarrei ematen dien asistentzia-zerbitzuan, berdinduta –gutxienez- EAEko beste eskualdekoek jasotzen dutenarekin.

Bozketa egin , emaitzak horrela izan dira:

1. ELA eta Lab-ek hautetsiez proposamenari uko egin zaio 3 boto alde (EH Bilddu) eta 5 boto aurka (PNV) .
2. EAJ-PNV- Irurak aurkeztuta mozio onartu da 5 boto alde (PNV) eta 3 boto abstentzio (EH Bildu).

Ondoren , EAJ-PNV- Irurak mozioa onartuta geratu da.

Eztabaida:

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du bi mozioak berdinak direla eta galdetu du zergatik EAJko kideek ez duten onartzen sindikatuek aurkeztutako mozioa.

Alkateak erantzun du ez daudela ados sindikatuek aurkeztutako mozioaren puntu batzuekin. Izan ere, lehenengo puntuan enpresari eskatzen diote lan-hitzarmena sinatzeko, eta enpresari ez ezik, langileei ere eskatu behar zaie. Bestalde, Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzen zaio lan-gatazka konpontzeko, eta, horrez gain, eskatzen da Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak erantzun du bere udal-taldeak sindikatuen mozioa babestuko duela, eta nahiko arraroa iruditzen zaiola eskatzea langileei lan-hitzarmena betetzea. Bestalde, mozioan eskatzen da Osasun-sailarekin dagoen hitzarmena betetzea. Galdetu du ea langileek hitzarmenean ahalmenik daukaten, adibidez, astelehenean lanera joateko.

Alkateak adierazi du haiek eskatzen dutela langileen eta enpresaren artean konpontzea.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du enpresen eta langileen erantzukizuna ez dela berdina. Dirudienez, 2013tik, langileak saiatzen ari dira hitzarmen duin negoziatzen, baina enpresak ez du kasurik egiten. Osakidetzak urtero 20 miloi euroko diru-laguntza ematen dio eta eskualdean denok dakite ez dela zerbitzu berdina ematen zerbitzu publikoekin alderatuta (epeak luzatzen dira, mediku gutxiagoa dago eta soldata txikiagoak ere...). Sindikatuek eskatzen dutena oso logikoa iruditzen zaio, hau da, udalek lan-hitzarmen duina sinatzea eta Osakidetzarekin sinatutakoa betetzea eta emandako diru publikoarekin gauzatzen jarraitzea. EAJ ez ikusiarena egiten ari dela eta sindikatuek gauza oso argiak eta errazak eskatzen ari direla. Oso erraza dela urrutiko gatazkak konpontzeko eskatzea, baina hemen ondoan gertatzen diren gatazkak konpondu behar direnean, arazoa saihestea. Benetan harrigarria iruditzen zaio EAJk mozioa aurkeztea. Gainera, enpresa horrek lau urte daramatza diru publikoa gastatzen, negozioa egiten, lan-hitzarmen duinik sinatu gabe, eta Irurako Udalak mozio horren alde egin beharko zuen.

## **HAMAIRUGARREN GAIA**

### **IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

Ez dago txostenik .

## **HAMALAU GARREN GAIA**

**GALDE-ERREGUAK.**- Gai hauek jorratu dira:

- a) Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du zer egoeratan dagoen plazako antzinako zaharren lokalaren kontzesioa.  
Alkateak erantzun du oraindik ez dela plazaratu.
- b) Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du mendekotasunaren gaineko dirulaguntza murriztuko den eta zer eragin izango duen Irurako pertsonentzako.  
Alkateak erantzun du oraindik ez direla ireki zerbitzu berriak kontratatzeko proposamenak.  
Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du, dituen datuen arabera, murrizketak Irurako bederatzi pertsoneri eragingo diela.  
Alkateak erantzun du aztertuko dutela.
- c) Alkateak adierazi du Maria Lasa anderea zoriondu nahi duela, azkeneko hilabetetan lortutako garaipenarengatik : urrezko domina Espainiako Txapelketako 800 metroko lasterketan eta munduko Kros txapelketan 20 garrena geldituz bakarka eta 5 garrena taldeka.  
Jose Ignazio Imaz zinegotziak eskatu du denon izenean zoriontzeko.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago hemen: "[www.irura.eus](http://www.irura.eus)".

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:25ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA